

Interes orokorreko xedapenak, **2017ko ekainaren 19tik 24ra** bitarteko aldizkari eta buletinetan (BOE, EHAA, ALHAO, BAO, GAO eta EBAO) argitaratutakoak.

I.-SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK:

BOE (Estatuko Aldizkari Ofiziala), eguna: 2017/06/19

- **ENPLEGUKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA.** –2017ko ekainaren 7ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen baita Metalaren sektoreko industria, teknologia eta zerbitzuen Estatuko II. hitzarmen kolektiboa. 7009. xedapena – 110 or.

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala: 2017/06/23

- **EUSKO JAURLARITZA. LAN ETA JUSTIZIA SAILA.** –**Akatsen zuzenketa.** Gipuzkoako Gozogintza eta Pastelgintza Industria eta Merkataritzaren hitzarmen kolektiboaren soldata berrikuspena. 1 or.

II.-ARAU-XEDAPENAK:

BOE (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

Eguna: 2017/06/19

- **PRESIDENTETZAKO ETA LURRALDE ADMINISTRAZIOETAKO MINISTERIOA.** –**Elikagaien segurtasuna. Landare-osasuna.** - Ekainaren 12ko 578/2017 Errege Dekretua, zeinaren bitartez aldatzen baitira urtarilaren 16ko 9/2015 Errege Dekretua, nekazaritzako ekoizpen primarioarekin lotutako europar komunitatearen araudia ezartzeko baldintzei buruzkoa; maiatzaren 30eko 379/2014 Errege Dekretua, zeinaren bitartez arautzen baitira kimuen eta kimuak ekoiztera bideratutako hazien sektoreko establezimenduen baimenen, higieñaren eta trazabilitatearen alorrean europar komunitatearen araudia ezartzeko baldintzak, eta otsailaren 18ko 280/1994 Errege Dekretua, zeinaren bitartez ezartzen baitira pestizida hondarren gehienezko mugak eta horien kontrola landare-jatorriko produktu jakinetan.

Eguna: 2017/06/21

- **KONTUEN AUZITEGIA.** –**Administrazio-kontratazioa.** – 2017ko ekainaren 14ko Ebazpena, Kontuen Auzitegiko Presidentetzarena, zeinaren bitartez argitaratzen baita 2017ko maiatzaren 30eko Batzarraren Erabakia, 2013ko azaroaren 28ko Batzarrean Erabakian adostu zen Estatuko eta Autonomietako Sektore Publikoko Erakundeek kontratazio-espeditenteen eta kontratuen, hitzarmenen eta kudeaketa-mandatuen laburpenak Kontuen Auzitegira telematikoki bidaltzearekin lotutako instrukzio orokorraren aldaketaren gainekoa. 7078. xedapena – 2 or.

Eguna: 2017/06/22

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.** –**Doako laguntza juridikoa.** - 2/2017 Legea, ekainaren 21ekoa, urtarilaren 10eko doako laguntza juridikoari buruzko 1/1996 Legea aldatzeari buruzkoa. 7106. xedapena – 3 or.

Eguna: 2017/06/23

- **EKONOMIA, INDUSTRIA ETA LEHIAKORTASUN MINISTERIOA.** –**Aseguru-entitateak.** – Ekainaren 12ko 583/2017 Errege Dekretua, zeinaren bitartez aldatzen baitira uztailaren 24ko 1317/2008 Errege Dekretuan onartutako Entitate aseguratzaile eta berraseguratzailen kontabilitate-plana eta entitate aseguratzaile eta berraseguratzailen taldeen urteko kontu bateratuak formulatzeko arauak. 7167. xedapena – 7 or.

Eguna: 2017/06/24

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. –Premiazko neurriak.** – 11/2017 Errege Lege Dekretua, ekainaren 23koa, finantzen arloko premiazko neurriei buruzkoa. 7230. xedapena – 10 or.

EHAO (Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala) <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cs2017000013>

Eguna: 2017/06/21

- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA.** - EBAZPENA, 2017ko maiatzaren 3koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendariarena, zeinaren bidez argitzen baitira ibilgailuak erregaiz hornitzeko jendaurreko salmenta-instalazioetan segurtasun-neurri osagarriak ezartzeari buruzko uztailaren 29ko 159/2014 Dekretuko hainbat atal, baita hura garatzen duen 2017ko martxoaren 16ko Agindukoak ere. 3102. xedapena.

ALHAO (Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofiziala)

Eguna: 2017/06/21

- **PREMIA FISKALEI BURUZKO DEKRETU ARAUEMAILEAK.**- Foru Gobernu Kontseiluaren 4/2017 Premia Fiskalen Dekretu Arauemailea, ekainaren 13koa, zeinaren bidez aldatzen baita 37/2013 Foru Araua, abenduaren 13koa, Sozietateen gaineko zergari buruzkoa, jabetza intelektualaren edo industrialaren ustiapenaren murrizketari dagokionez. 2368. xedapena – 2 or.

BAO (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

Eguna: 2017/06/22

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** – Bizkaiko Foru Aldundiaren 82/2017 FORU DEKRETUA, ekainaren 20koa, zeinaren bidez tributuen arloko zenbait erregelamendu aldatzen baitira, informazioa berehala emateko sistema txertatzeko Balio Erantsiaren Zergan. 9 or.
- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** – 3/2017 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, ekainaren 20koa, zeinaren bidez aldatzen baita Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko 1989ko ekainaren 30eko 8/1989 Foru Araua. 4 or.

Eguna: 2017/06/23

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** – Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1156/2017 FORU AGINDUA, ekainaren 19koa, zeinaren bidez Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 94. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten zerga-zorrak edo –zehapenak direla-eta Bizkaiko Foru Ogasunaren zordun direnen zerrenda argitaratzeko data ezartzen baita. 2 or.

GAO (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tel.: 94 425 25 15 Faxe: 94 423.22.95

Helbide elektronikoa: informacion.juridica@mutualia.es

.....

GIZARTE SEGURANTZAREKIN KOLABORATZEN DUEN 2. ZENBAKIKO MUTUALITATEA

HENAO 26 - 48009 BILBAO